

Gipuzkoako Lanbide Heziketa Publikoko ikasleak

1


Mugikortasun jasangarriago baten bidean



TXOSTENA 2025



Ikaslan Gipuzkoa, Lanbide Heziketa Publikoko sarea



Aurkibidea

SARRERA

LABURPENA: AIPAGARRIAK

3

1. PARTEHARTZEA ETA IKASLEEN PROFILA

2. MUGIKORTASUNAREN INGURUKO PERZEPZIOA

2.1. NORBERAREN PERZEPZIOAK

2.2. KANPORA BEGIRAKOAK

3. IKASLEEN EGOERA

4. IKASLEAK ESATEN DUTENA

Sarrera

Gipuzkoako Lanbide Heziketa Publikoko 2.792 ikasleen erantzunak jaso dira

4

**Ikasleen %71,9a
Ikastetxera
garraio publikoan edo oinez doa**

**Ikastetxera autoan doazen ikasleen
artean %67ari gustatuko litzaioke
autoa konpartitzea**

Kontestualizazioa:

Ikaslan Gipuzkoa Lanbide Heziketako Ikastetxe publikoen sarea da, bertan 27 ikastetxe, 22 herrietan banatuta eta 12.000 ikaslek parte hartzen dute ikasketetan hauetatik 4.000 inguru neskak dira.

Ikasleak 16 urte eta 35 urte artekoak dira, Hasierako Lanbide Heziketa, Erdi mailako eta Goi Mailako Heziketa Zikloak, Espezializazioak eta langile-langabetuentzako ikastaroak eskaintzen dute.

Ikaslan Gipuzkoa elkarteak, osatzen duten 27 ikastetxeen bitartez, Gipuzkoako Lanbide Heziketako 2/3 ikasleengan heltzeko aukera du.

Elkartearen eta Lanbide Heziketako ikastetxeen estrategietan eta eduki programatikoetan barneratuta dute trantsizio ekologikorantz bideratzeko trebeziak lantzeko edukiak, gaitasun ekologikoak sustatzeko ekintzak. Hori gauzatzeko ekimen ugari egiten dituzte: Ikasgai-Modulo programetan zeharka txertatuz jasangarritasun kontzeptuak, erronken eta proiektuen bitartez garapen jasangarrien helburuen edukiak sortuz, birziklatzea bultzatuz, parekotasun planak diseinatuz, trantsizio ekologikorako eta gizarte kohesiorako ekimenak sustatuz eta ibilgailuak konpartitzeko ekimenak, autobus publikoak erabiltzeko deialdiak, eta abar.

Don Bosco LHII elkartekide bat da eta 23 Heziketa zikloan artean biak zuzenean lantzen dute deialdiaren ildoekin: Elikagaien industriako prozesuak eta kalitatea, eta Mugikortasun seguru eta jasangarrirako prestakuntza. Oarsoaldeako, Bidasoaldeko, Donostialdeko ikasleak jasotzen ditu.

Argi dago eten gabe eragin behar dela kolektibo gaztean gizartearen eraldaketa trantsizio ekologikorantz bultzatzeko eta urtero ekimen berriak bultzatzen dute. IkasMugilan proiektua Gipuzkoako foru Aldundiak duen estrategien eta helburuen baitan kokatzen da.

Proiektuarekin landu nahi dena da Lanbide Heziketako ikasleak sentibilizatzea eta laguntzea trantsizio ekologiko gaitasunak, trebeziak, ezagutzak eta konpetentziak lortzen. Bide batez gaitasun berdeak sustatzea eta gizarteratzea. besteak beste, izaera komunitarioak eta komunitatearen parte izateak duen balorea gorapatzea, indibidualismoaren aurrean.

Genero-berdintasun ikuspuntutik ekimenak burutzeak duen garrantziaz konturatzea eta ekintza positibo, partehartzaile eta berritzaileen parte izatea.

Ikasleen trantsiziorako ekologikorako gaitasunak hartzeaz gain ikasleen ibilgailuen erabilera komunitario bat bultzatzea da APP baten bidez.

Proiektu honetan parte hartuko duten eragileak Ikaslan Gipuzkoako Lanbide Heziketako ikastetxe publikoetako ikasleak izango dira, bereziki Don Bosco LHilkin batera burutuko da proiektua eta pilotagea “[Mugikortasun seguru eta jasangarrirako prestakuntza](#)” Heziketa Zikloa dute eta gai honekin buru belarri ari dira. Bestalde autoak partekatzeko orduan Sexuaren aldagaia garrantzitsua da eta guneak partekatu behar direnean, gune seguruak izatea bultzatuko dugu, horretarako “n-cuentra” (transformación organizacional y enfoque de género) enpresako Silvia Murielek ere parte hartuko du. Komunikazio arloa TUTTI Komunikazioa enpresak landuko du eta Mugikortasun Jasangarrirako ikasMugiCar APParen azterketa eta diseinua Codesintaxek egin du.

IkasMugiCar, 2030 Garapen jasangarrien helburuekin bat dator puntu hauetan:

- 4. Helburua: Guztiontzako kalitatezko hezkuntza inklusiboa nahiz bidezkoa bermatzea eta etengabeko ikaskuntzarako aukerak bultzatzea. Hezkuntza bidez gizarte berdintasunerako tresna izatea.

13. Helburua: Neurri urgenteak hartzea klima-aldaketaren eta haren ondorioen aurka egiteko, Co2 emisioak murriztea eta airearen kalitatea hobetzea.

Lau ekimen nagusi ditu proiektuak:

1. Lanbide Heziketako ikasleekin Trantsizio ekologikorako eta berderako gaitasunak garatzea, horretarako ikasturtean zehar ikasleei galdeketa egingo zaie zein puntu arte erabiltzen duten ibilgailuak, nola mugitzen diren ikastetxera, mugikortasuna kopurua, fluxuak, ordutegiak, zergatiak eta nola egiten den, genero ikuspegia aldagaia kontuan izanda. Erabiliko den metodologia kuantitatiboa (inkesta) eta

- kualitatiboa (elkarrizketa) erabiliko da. Bukaeran bi txosten egingo dira, bat orokor eta bestea genero ikuspegia kontuan hartzen duena
2. Lanbide Heziketako Ikastetxeen bidez, bi lerro landuko dira gaitasun trantsizio ekologikorako konpetentziak garatzeko:
 - a. Galdetegiak diseinatzeko proposamenak egitea eta emaitzen inguruko azterketa egitea
 - b. Zeharka edo zuzenean egiten duten erronketan gaitasun berdeak txertatzea
 3. Ikasleen artean ibilgailu komunitarioen erabilera sustatzea, mugikortasun jasangarriagoa, berdeagoa eta ekologikoagoa izateko, IkasMugiCar APPa sortuko da, Lanbide Heziketako ikasle, ibilgailuak era komunitarioan konpartitu eta erabiltzeko.
 4. Komunikazio bidez emaitzak, eta ekimenak zabaltzea

Honek ekarriko duena da, egoeraren azterketan jaso beharreko informazioei buruzko ekarpenak egitea, proiektuan bertan egon daitekeen genero-eraginaren aurretiazko ebaluazioaren ondorioz.

%71,9a

Ikastetxera

garraio publikoan edo oinez doa

Laburpena: aipagarriak

Partehartzea

- Partehartzea handia izan da, galderei erantzuten 2.792 ikaslek parte hartu dute; Ikaslan Gipuzkoa, Lanbide Heziketako Publikoko 25 ikastetxeetako ikasleak izan dira, Gipuzkoako 22 herri eta irietan banatuta.
- Ikasleen erantzunak, sexuaren arabera, horrela banatu dira: %33,7a emakumeak izan dira eta %64,9a Gizonezkoak, Ez binarioak %1,4koa izan da
- Galdetegia egiterakoan 2 taldetan banatu ditugu erantzunak, ikastetxera joateko, autoa erabiltzen dutenentzat (%29a) eta kotxea ez dutenak erabiltzen (%71), hau da 1-10 eta 18-19 galderak denontzako berdinak izan dira eta 11-17 bitartean banatuak izan dira.

8

Heziketa Zikloak

- Ikasleen %57,2a Goi Mailako ikasleak izan dira eta %39,8 erdi mailakoak. Besteak Hasierako Lanbide Heziketa eta Espezializazioetako ikasleak izan dira
- STEAM arloko ikasleak %62,7 izan dira

Garraio jasangarria eta Garapen Jasangarrirako Helburuak

- Ikasleen %29ak auto pribatua erabiltzen dute ikastetxera joateko, bakarrik, partekatuta edo norbaitek ekartzen du
- Autoa konpartitzen ez dutenen artean ordutegi aldakorra eta erosotasuna da gehien nabarmentzen diren aitzakiak. Era berean garraio publikoa ez erabiltzearen aitzakia ere autoak denbora aurreratzeko ematen dion erosotasuna(%46,3a), itxaronaldi luzeak (%44,4) eta autobusaren ibilbide ez egokiak dira(%26,9a)
- Ikasleen %69,8ak Garapen Jasangarrirako Helburuak ezagutzen dituen galdetzerakoan, ezezkoarekin erantzun dute.
- Ikasleen %37ak datorren urtean autoa konpartitzea gustatuko litzaioke eta beste %30ak, agian bai, erantzun du.


1. Partehartzea eta ikasleen profila

Azterketa honetan, Ikasleen partehartzea handia izan da Lanbide Heziketa Publikoko 2.792 ikaslek erantzun dute, ikasle guztien erenak. Ordezkaritza handia izan da, 25 ikastetxe. 6 ikastetxeen haundien artean erantzunen %64,4a jaso dira. Beste 19ean artean %35,6 erantzun jaso dira.

Lanbide heziketako familien artean erantzun gehien jaso dira arlo tekniko-industrialen artean, Fabrikazio Mekanikotik %20,3 erantzun jaso dira, Elektrizitate eta Elektronikatik %11,9a eta Instalazio eta mantenuko arlotik %10,8a.

9


4- Ikastetxea? / ¿Centro?
2.792 erantzun



Gipuzkoako Lanbide Heziketa Publikoko 2.792 ikasle

Ikasleen Adina 18-25 bitartekoa izan da nagusiki (%71,1a), erantzun duten ikasleen %17,7a adin txikikoa izan da.

2- Adina / Edad
2.792 erantzun



10

Goi Mailako ikasketak egiten duten ikasleak %57,2a izan dira eta %39,8a Erdi Mailako Heziketa Zikloak eta %95,5ak goizez egiten ditu ikasketak.

6- Maila? / Ciclo?
2.765 erantzun



Inkestatuen %33,7a emakumeak izan dira

2. Mugikortasunaren joera pertsonalak eta ingurukoak


2.1. Joera pertsonalak

Gida baimena duten ikasleak, herena da, gutxiengoa da, ikasleen gehienak ez du gida baimenik %67,2a, honek autoan, bere kabuz edo auto partikularrean ikastetxera doazen ikasleen kopurua asko jaisten da.

11

8- Gida baimenik? / ¿Permiso de conducir?


2.792 erantzun



Ikastetxera iristeko auto partikularra erabiltzen duten ikasleen kopurua %29a da eta aipatzekoa %16,1a oinez doala ikastetxera, eta ikasleen erdiak baino gehiago garraio publikoa erabiltzen dutela.

10- Zein garraiobide erabiltzen duzu normalean zentrora iristeko? / ¿Qué medio de transporte utilizas habitualmente para llegar al centro?

2.792 erantzun




2.1.1. Autoa Garraiobide moduan erabiltzen dutenen artean

Autoa konpartitzeko galderan, 772 ikasle erantzun dute zenbatekin partekatzen duten autoa eta aipagarria da 265 ikasle bakarrik joaten direla ikastetxera %34,3. Hobetzeko aukerak ematen du aldagai honek. Baina era berean beste %65,7ak autoa konpartitzen dute.

12

11- Zenbat pertsonekin partekatzen duzu bidaia normalean, zutaz gain? / ¿Con cuántas personas sueles viajar, además de ti?


772 erantzun



Eta konpartitzen ez dutenen artean, zergatik ez duten autoa konpartitzen galdetu zaie. Ordutegiaren eta Erosotasuna erantzuna %85ak eman du eta %29,5 beste arrazoi batzuegatik dela erantzun dute. Hala eta guztiz %8,3ak diruak eskatzeak atzera botatzen die eta %7,8a segurtasuna aipatzen du.

12- Ez baduzu autoa konpartitzen, zergatik? / Si no compartes el coche ¿Por qué?


445 erantzun



Ikasle gehienak 30 minutu baino gutxiagoko bidea egiten dute ikastetxera heltzeko, hau da ikasleen gehiengoa herrikoa-iriko edo hurbilekoa da. %12,4 da 30 min.tik gora egiten duena ikastetxera heltzeko.

13- Zenbat denbora behar duzu, batz bestea, ikastetxera iristeko? / ¿Cuánto tiempo (promedio) necesitas para llegar al centro?

783 erantzun




13

Autoa partekatzeko nahia handia ikusten da datorren ikasturterako 4 ikasletik 3k partekatzeko aukera ikusten du era batera edo bestera. Bestalde autoa konpartitzeko kanpainak burutzea egoki ikusten da ikasleen %25ak ez du nahi konpartitu eta bakarrik etortzen diren ikasle kopurua antzeko da. Ariketa berezia egin beharko da.

14- Datorren ikasturtean zure auzoko-herriko ikaskideekin autoa partekatzeko gustatuko litzaizuke? (erantzun anitza) / ¿Te gustaría compartir, el curs...tro que vivan cerca? (Varias respuestas permitidas)

783 erantzun




Zehazteko eskatzen zaionean esaten dute, asko erraztuko lukeela eta autoa konpartituko lukete konfiantzazko ikaskideak aurkituz gero, dirua

aurrezten badu eta bidaiak ordaintzen badira, aparkalekuan lekua izango balute,...

Garraio publikoa ez erabiltzearen arrazoi nagusien artean erosotasuna eta garraioen ordutegien ez egokitasuna da.

16- Auto pribatua erabiltzen baduzu eta ez garraio publikoa, zerk eragozten dizu? / En el caso de que uses coche privado y no el transporte público ¿Qué te lo impide?

726 erantzun




14

Beste arrazoiak ikasleen %15,2ak aipatzen ditu eta honako arrazoiak azaltzen dira:

- Autobusen-trenen ordutegia, larregi itxaron beharra, autobus geltokia urrun, konexioak
- Ikasketak eta gero edo lehenago lanera segituan joan edo etorri beharra

17- Puntuak, deskontuak edo sariak jasotzeko aukera balego, aldatuko zenuke garraiobide jasangarriago batera? / Si hubiera incentivos como...imarías a cambiar a un transporte más sostenible?

759 erantzun




2.1.1. Ikastetxera Garraio Publikoa edo oinez joaten diren ikasleak

Ikastetxera garraio publikoan edo oinez doazen ikasleen %71,9a da. Hauetatik, ikasleen %62,9 bakarrik joaten da ikastetxera

11-Nola joaten zara Ikastetxera? ¿Cómo vas al Centro?


1.708 erantzun



Auto pribatua ez dute erabiltzen gehienetan ez dutelako adinik edo autorik (%65,9), baina aipatzeko da %15ak ez du beharrezkoa ikusten autoa erabiltzea, hau da gazteenak dira talde honetan sartzen direnak.

12-Zergaitik ez duzu kotxe pribatua erabiltzen? // ¿Porqué no usas coche privado?


1.708 erantzun



Ikasle talde honi galdetu zaio Garapen Jasangarrirako Helburuen ezagutzaren inguruan eta %69,8ak erantzun du ez dakiela zer diren. Honek ematen digu aurrerantzean, lanbide heziketan gaia konkretuki landu behar dela eta programa-erronken barnean sartu beharko direla.

14-Badakizu zer diren Garapen Jasangarren Helburuak, GJH? /¿ Sabes qué son los Objetivos de Desarrollo Sostenible, ODS?

1.708 erantzun



16

Kolektibo honi galdetu zaio, zergatik ez duten auto konpartitua erabiltzen eta gehienak erdiak baino gehiagok, %52,5ak, erantzun du erosotasunagatik dela, beste %32,7ak ordutegi aldakorrengatik eta %25ak beldurrak edo segurtasun ezak. Dirua eskatu beharraren gaia ere aipatzen du %20,1ak.


Ikasleen erdiak baino gehiagok uste du erosotasuna dela autoa ez konpartitzearen arrazoia

2.2. KANPORA BEGIRAKOAK


Ikasleek zenbateraino jabetzen diren autoa erabiltzeak, ingurugiroan dakarren kalteaz galdera batzuk ere luzatu dira, adibidez ea dakiten Kmko zenbat CO2 isurtzen den edo ea hausnartu duen ingurumenean duen eragina. %61ak ez da jabetu edo ez du hausnartu gai honetaz.

17

13-Badakizu zenbat CO2 isurketa gutxiago emititzen den Km-ko kotxe partikularrean ez etortzeagatik? //¿Sabes cuantas emisiones por Km de CO2 se evitan por no usar el coche particular?
1.708 erantzun



18- Garraio modua aukeratzen duzunean, hausnartu al duzu inoiz, ikastetxera joateko moduak ingurumenean duen eraginari buruz?/ Cuando eliges... ambiente que tiene tu forma de acudir al centro?
2.777 erantzun



3. IKASLEEN EGOERA

Ikastetxera autoan etortzen diren ikasleak asko ez dira, baina arazoak izaten dira aparkatzerako orduan, honek “stres” egoerak sortzen ditu, askotan ikastetxetik urrun dauden aparkalekuetan utzi behar izaten dute autoa. Erosotasunaren aitzakia erabiltzen da autoan ikastetxera joateko baina batzuetan kontrako egoerak sortzen dit.

Ikastetxera doazen ikasle gehienak oinez, edo garraio publikoan doaz eta azterketan azaltzen den moduan ikasle gehiagok erabiliko zuela garraio publikoa ordutegiak eta geltokiak egokitzen baziren ikastetxera.

Ikasleen kopuru handi bat adin txikikoa da eta ez du gida baimenik, baina ez dute GJHen jabetzarik eta ezta ere autoak erabiltzeak ingurumenean dakarren kalterik, beraz gai honetan Lanbide Heziketako ikastetxeetako hezkuntza programetan, ETHAZI erronketan gaiari garrantzi edo ikuspegi berezia eman beharko litzaioke.

Autoa erabiltzen duten ikasle kopurua %29, ia herena da eta adin gabeko edo garraio baimenik ez duten ikasle hauetan da gehien eragin behar dena, garraio jasangarriagoa erabiltzeko, hau da garraio publikoa edo auto konpartituta.

Ikasleen jabetza aktiboan eragin behar da eta tresnak jarri behar zaie garraio jasangarriagoa erabiltzeko, erosotasunaren alde, hezkuntza programez aparte, kanpainak eta autoa partekatzeko APPak adibidez.

Ikasle asko dira autoa partekatzeko zailtasunak ikusten dutenak erosotasuna, ordutegien bateratzea, bizilekua, ordaintzeko-kobratzeko zailtasunak, segurtasuna,... horretarako ikastetxeak baliabideak jar dezake eta aldagai hauetan eragin dezaketen neurriak areagotu.

Ikasleak Dualeko egonaldian daudenean, bakoitza enpresa diferente batera joan beharrak, autoa edo publikoa ez den beste garraio mota bat erabili behar izaten du.

4. IKASLEAK ESATEN DUTENA

- Autobus gehiago jartzea
- Autobusen ordutegiak errespetatzea
- Ikastetxeko ordutegiak garraio publikoa kontuan izanda
- Ikastetxeko BUS pribatuak jartzea
- Autoa partekatzeko APPa
- Garraio publikoa edo jasangarria erabiltzen dugunontzat sariak, bekak,...
- Autoa erabiltzea eroso da, denbora aurrezten dut
- Autoa erabiltzen dut ez dudalako garraio publikoa etxetik edo ikastetxetik hurbil
- Autoa partekatzearen aldeko bideak ikusten ditu:
 - Garraio gastua partekatzeari
 - Ikasle berriak ezagutzea
 - Jakitea zein pertsonekin partekatu dezakedan autoa
 - Denbora aurrezteari
 - Ingurumena babesteari

